

**Funtsezko jarduerak:** Gure hornitzaileekin harremana mantendu behar dugu; izan ere, beraiek ez baldin badizkigute produktuak ekartzen, ezin ditugu gure plater osasuntsuak eta lokalak egin. Eta horren ondorioz, ez dugu etekinik izango. Horrez gain, eraikuntza bat izatea ere ezinbestekoa da, gure proiektua aurrera eramateko, bertan zerbitzua emango baitugu. Gure ideia Pariseko Panthéon-Sorbonne unibertsitatearen inguruan lehen lokala jartzea da, eta bigarrena American University of Paris alboan. Horrela, gure bezeroak erakartzeko aukera izango dugu. Guzti hau egitean, gure plater osasuntsuak eta euskaldunak prestatzen jarraituko dugu, gure prozesuak eta moralak aldatu gabe.

